

ASTIGARRAGAKO UDALAREN ETA ASTIGARRAGAKO HERRI ESKOLAKO GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO

Astigarragan, 2025eko apirilaren 2an.

PARTE HARTZEN DUTE

Alde batetik, Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako alkatea, IFK zenbakia P20094001 duen Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Bestetik, Naroa Morales Ibañez (72501127-K), G75111104 zenbakia duen Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkartearen (AHEGE) izenean eta ordezkartzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa


ADIERAZTEN DUTE:

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluari jarraikiz, udalerrien eskumen propioak direla, besteak beste:

- “Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea”.
- “Irakaskuntzaren programazioa burutzea, espazio publikoetan bizikidetza harremanak kudeatzea edota hezkuntza-programazioan parte hartu nahiz herritarren komunitateren nahiak eta beharrak asetzea”.

2.- Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkartearen (AHEGE) xedea, besteak beste, honako hauek direla:

- Herri Eskolako eskolameei eskolaz kanpoko kirol programa antolatu, eskaini eta kudeatzea.
- Herri Eskolako eskolameei oinarrizko trebeziak bereganatzeko aukera ematea. Honela, igeriketa kanpaina eskolarran parte hartzen du Astigarragako Herri Eskolak.
- Hezkuntza-komunitatearen baitan aktiboki parte hartzea, gurasoen arteko harremanak ehunduz eta euren partaidetza sustatuz.



- Gurasoen kezka edota intereseke gaiei buruzko hezkuntza-jarduera zabala eskaintzea.

3.- Elkartek Astigarragako Udalari dirulaguntza eskatu diola (2025eko otsailaren 26ko datako, 1018 erregistro-zenbakia) 2024-2025 ikasturtean zehar Astigarragako Herri Eskolako hezkuntza-komunitateari begira hezkuntza arloko hainbat jarduera antolatzeko, zehazki:

- 2024/2025 ikasturteko eskolaz kanpoko kirol programa antolatu eta aurrera eraman ahal izateko.
- 2024/2025 ikasturteko igeriketa kanpaina eskolarra aurrera eraman ahal izateko.
- 2024-2025 ikasturtean zehar Astigarragako Herri Eskolako hezkuntza-komunitateari begira hezkuntza arloko hainbat jarduera antolatzeko.

4.- Astigarragako Udalak onartuta duela 2024-2026ko dirulaguntzen plan estrategikoa; eta plan horretan, dirulaguntza izendunen lerro hau jasotzen dela:

- *Pertsona hartzaileak:* Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkartea
- *Ematearen modalitatea:* Izenduna.
- *Helburuak:* 2024-2025 ikasturtean zehar Astigarragako Herri Eskolako hezkuntza-komunitateari begira hainbat jarduera antolatzea; hala nola, eskolaz kanpoko kirol programa, igeriketa kanpaina, psikomotrizitate saiöen behaketak etab .
- *Laguntzaren zenbatekoa:* 30.000 euro
- *Aurrekontuzko aplikazioa:* **1 0600.481.01.323.20 2025**

5.- Dirulaguntza hau bideratzeko Udalak **30.000** euro ditu udal-aurrekontuko kontu-sail honetan: **1 0600.481.01.323.20 2025**

6.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. eta 28. artikuluekin eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzarekin bat etorrita, zuzenean ematen diren dirulaguntzen erabakiak hitzarmen bidez hartu behar direla; eta ezinbestekoa dela araudi horietan xedatutakoa kontuan hartzea.

Ondorioz, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau onartzea akordio hauekin:

AKORDIOAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea honako hau da: AHEGEk 2024/2025 ikasturtean eskolaz kanpoko kirol programa antolatzeko eta aurrera eramateko, igeriketa kanpaina eskolarra aurrera eraman ahal izateko eta hezkuntza-komunitatearen ongizate, garapen nahiz herri kohesioaren alde, Astigarragan hezkuntza-jarduera zabala eskaintzen jarraitzeko dirulaguntza arautzea.

BIGARRENA.- Ekintza horiek bideratzeko Astigarragako Udalak Astigarragako Herri Eskolako Guraso elkarteari **29.587,00** euroko dirulaguntza emango dio.

HIRUGARRENA.- Astigarragako Guraso Elkarteak betebeharrak hartzen ditu; beti ere, jarduerak aurrera eramateko kontratazioak, antolaketa nahiz lan administratiboak eta horietatik eratorritako erantzukizunak beregain hartuz:

3.1. Jarduera hauek burutzea:

Igerikera eskaintza: LH1. eta LH2.mailako ikasleei bideratuta; guztira, 165 ikasle. 2024-2025 ikasturteari begira, antolaketari dagozkion aldaketa esanguratsuak aurreikusi dira. Astigarragan bertan halako eskaintza bideratzeko igerileku estali egokirik ez denez, inugruko herrietako igerilekuetan egiten dira igeriketa saioak.

Aurreko ikasturtean, Hernaniko igerilekuan egin zituzten saioak. Haur kopurua handiegiak, ordea, zailtasunak dakartza. Horrenbestez, LH1.mailako ikasleek 2024-2025 ikasturteko saioak Hernanin egingo badituzte ere, LH2.mailako ikasleek Donostiako Altzako eta Intxaurrondoko kiroldegietan egingo dituzte igeriketa saioak.

Eskolaz kanpoko ekintzak: LH eta LH mailetako ikasleei zuzenduta, guztira, 695 ikasle. Eskolako bi jangelen antolaketak baldintzatuta, 2024-2025 ikasturtean ez da berrikuntza esanguratsurik izango.

Herri Eskolako eskolaz kanpoko 2024-2025 kirol eskaintzak bere barne hartuko ditu:

1. Eskola kirola programa: benjamin eta alebin mailetarako kirolanitz programa.
2. Jolas-hezi programa: benjaminareko maileri bideratutako kirol hastapeneko programa.

Aurten, eskola kirolaren kasuan, benjamin eta alebin mailakoek aukeran izango dute asteen behin, edota bitan egin.

Kirolletakoak ez diren jarduerari dagokionez, eskaintza zabala izango da: judoa, kirol hastapena, zirkoa, antzerkia, dantza, yoga eta artisten txokoa.

Psikomotrizitate behaketa-saioak: Astigarragako Herri Eskolako Haur Hezkuntzako 4.mailan egiten diren psikomotrizitate saioen gaineko behaketak. Behaketa saioak herri eskolaz kanpoko psikomotrizitate-aditu batek bideratuko ditu, ondoren, irakasle-tutoreei haurren garapen egokian eragiteko prebentzio eta esku-hartze ildoak proposatzeko.

- Eskola orduz kanpo Astigarragako Herri Eskolan eskaintzen diren "Psikomotrizitate Laguntza Zerbitzuko" banakako saio pertsonalizatuak hitzarmen honetatik kanpo geldituko dira.

Horrez gain, elkarteak ondoko konpromisoak hartzen ditu:



Eskola orduraz kanpo antolatzen diren “Psikomotrizitate Laguntza Zerbitzuko” banakako saio pertsonalizatuak aurrera eramateko, ikasturtez ikasturte:

- Herri Eskolako psikomotrizitate-gela erabiltzeko eskaera luzatuko dio Guraso Elkarteak Udalaren Euskara eta Hezkuntza zerbitzuari.
- Psikomotrizitate-adituaren edota aholkulariaren ikasturteko azalpen-memoria aurkeztuko dio Guraso Elkarteak Udalaren Euskara eta Hezkuntza zerbitzuari.

Halaber, Astigarragako Udalaren eta AHEGEren lankidetzatik, hezkuntza komunitateari begira eta, bereziki, gurasoei zuzendutako hitzaldi, trebakuntza edota bestelako lan saioak antolatzeko ahalegina egingo da.

Saioak irekiak eta doakoak izango dira eta gurasoen kezka edota intereseko gai zehatzak jorratuko dira, AHEGE-k komunikazio eta sustapen lana egingo du; guraso-komunitatean eskaintzaren berri eman eta gurasoek aktiboki parte har dezaten.

Astigarragarantz Legegintzaldi Planean (2023-2027) Udalak bere egiten du euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunea eramateko erronka. Ildo horretan, Astigarragako egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza-politika berezitua garatuko da datozen urteetan; euskararen indarberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartuz, eta herritar guztien hizkuntza-eskubideen alde. Herritarren kontzientziazioan eragiteko asmoz, UEMAren esperientzia eta zerbitzuak baliatuko dira. Eta, nagusiki, ardatz bikoitzekoa izango da euskararen biziberritzearen aldeko lanketa; alde batetik, Euskararen 2024-2029 Plan estrategikoa eta, bestetik, Udaleko euskararen erabilera plana (VII. Plangintzaldia) izango dira etorkizuneko norabidea argituko duten bi lanabes estrategikoak.

Horretarako, ezinbestekoa izango da eremu instituzionalean zein sozialean koordinazioa eta osagarritasuna sustatzea; alegia, euskararen garabidea udalaren eta herri-eragileen arteko lankidetzatik hauspotzea. Hala, ezinbestekotzat jotzen da **euskararen erabilerako konpromisoa**, gutxienezko hauetan:

- Elkarteak euskara edo, bestela, euskara eta gaztelania erabiliko ditu egiten dituen jarduera-eremu, deialdi, publizitate eta abarretan (udal hizkuntza irizpideak bere eginez). Astigarragako Udalak hizkuntza-konpromiso guztiak betetzen direla ikuskatu ahal izango du. Horretarako, kasuan kasu erabakiko du zein neurketa-sistema erabili eta elkartearen derrigortua dago eskatzen zaion informazioa ematera.
 - Astigarragako Udalak herriko eragileetako hezitzaileei bideratutako hizkuntza-kudeaketarako antolatutako formazio eta bestelako lan-saioetan parte hartuko du.
- Hitzarmen honen baitan antolatutako jardueretan, Astigarragako Udalaren babes

adieraziko du informazio eta komunikazio euskarrietan.

3.2. Eskola kirola programa Gipuzkoako Foru Aldundiko eskola kiroleko jardueren programak zehaztutako jarraibideak, udalerriko kirol politikaren interesak eta AHEGEren helburuak kontuan hartuz eratuko du.

3.3. AHEGEk, eskola kirolaren jardueretatik eratorritako koordinazio eta kirol-formakuntza beharrak asetzeko, eskola kirolaren arretarako berariazko egitura bat sortzeko konpromisoa hartzen du. Egitura honek eskola kiroleko koordinatzaile bat eta eskola kiroleko teknikariak bere barne hartzen ditu.

3.4. AHEGEk langile horiek prestakuntza eta teknifikazio jardueretan parte hartzea sustatuko du, bai Herri Eskolaren eremuan eta baita udalerrri eremuan antolatu litezkeenetan ere.

3.5. Udalak sustatuta sortu eta garatu den eskola kirolaren kudeaketa egituraren parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

3.6. Emakumeen partaidetza handitzeko Udalak abian jarritako lan prozesuetan parte hartuko du.

3.7. AHEGEk Mundarro elkartarekin elkarlana sustatuko du. Horrela, eskolatze garaia amaitutakoan, adin zehatzetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, kirol praktikaren jarraikortasuna bermatzeko, bai errendimendu helburuekin eta baita aisi helburuekin ere, eskola-umeak Mundarro elkartera iragan ahal izatea sustatuko du AHEGEk.

3.8. Haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, elkartearen egituraren barruan adingabeekin inolako harremanik duten pertsonak Delitugile Sexualen Erregistro Nagusian aurkitzen ez direla egiaztatu eta bermatuko du.

3.9. Dirulaguntzaren udal ordenantzaren 21. artikuluan adierazitakoa betetzea, hala nola: diru-ekarpena dirulaguntzaren xederako erabiltzea, dirulaguntza zuritzea, beharrezko baimenak eskatzea, udalaren ikuskaritza onartzea, hizkuntza- eta berdintasun-irizpideak betetzea, aldaketa esanguratsuen berri ematea...

3.10. AHEGE-ren ardura izango da ekintza bideratzeko beharrezko giza-baliabideak jartzea; eta nolanahi ere, indarrean dagoen legeria betetzea.

3.11. Dirulaguntza itzultzea, baldin eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta, nolanahi ere, indarrean dagoen araudiak xedatutako kasuetan.

3.12. Jasotako laguntza justifikatu beharko da 2025eko irailaren 30erako. Dirulaguntza justifikatzea dokumentu hauek aurkeztuz egingo da:

- Berariaz, dirulaguntzen udal ordenantzaren 23. artikulua adierazitakoak:



- Jardueren azalpen-memoria.
- Diruz lagundutako ekintzen gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Gastuen eta ordainketen frogagiriak: faktura, tiketak eta/edo ede bererako balio duten gainerako dokumentuak, I. eranskinean zehazten direnak, baita aurkezten diren dokumentuen zerrenda ere.
- Laguntza ekonomikoaren ondorioz sortutako jardueran egindako azterlan, programa, argitalpen, iragarki-kartel edo dokumentazio grafiko eta idatzi guztiaren ale bat.
- Hizkuntza-irizpideen betetze-maila adierazten duen agiria (E097).
- Generoa baloratzeko fitxa (E036)

3.13. Jasotako zenbatekoak itzultzea, dagozkion atzerapen interesekin, Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren edota hitzarmen honetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

3.14. Hitzarmen honetan hitzartutako lankidetzak eta betetze mailaren jarraipena egiteko udalak eskatutako bilerak egitea eta informazioa ematea. Udalak horrela eskatuz gero, elkarteak ezingo dio uko egin.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak hauek izango dira:

4.1. Onartutako dirulaguntza ordaintzea, eta Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 22. artikulua aurreikusitako ordainketa aurreratuen arabera, dirulaguntzaren %70aren ordainketa bideratuko da dirulaguntzaren onarpenarekin batera. Gainerakoa, dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko da.

4.2. Ikasturte hasieran zehaztutako egun eta orduetan, jarraian adierazten diren udal azpiegitura eta ekipamenduak uztea:

- Astigarragako kiroldegiko kirolanitz pista eta espazio osagarriak (biltegiak, aldagelak,...).
- Txomiñenea pilotalekua.

4.3. Hitzarmen honen baitan burutuko diren jardueren informazioa zabaltzea, ahal dela, hileroko agendan eta bestelako euskarrietan.

4.4. Diru itzulketen espedienteak izapidetzea udal ordenantzaren 26. eta 26. artikuluen arabera.

4.5. Hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzea arau-haustetza jo daitekeenean (*Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 27. artikuluen arabera*) zehapen espedienteak izapidetzea ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

BOSGARRENA.- Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuak xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein



modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazioan eta garapenean dirulaguntzei aplikagarria zaien administrazioaren ordenamendu juridikoa aplikatuko da.

Interpretazio hori egitea, Astigarragako Udalari dagokio eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

ZAZPIGARRENA: Astigarragako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Zerbitzuko arduradunak egingo dio jarraipena hitzarmenari eta bi aldeetako batek hala behar dela iritziz gero, behar diren adina bilera egingo dira hitzarmenarekin sor litezkeen gorabeherak argitzeko.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen honetako alde biek hartzen dituzten betebeharrak edo erantzukizunak, eta elkarrengandik dituzten eskubideak, eta hitzarmen honetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietarako, honako legeria aplikatuko da:

1. Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.
2. Herri Administrazioetako Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinen bitartez diru-laguntza orokorrak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearena erreglamentua onartzen dena.
4. Dirulaguntzen Udal Ordenantza (*ordenantza eskura dago udalaren webgunean: <https://www.astigarraga.eus/eu/beste-ordenantza-batzuk>*)
5. Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetatik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira.


Horrela jaso dadin eta ados daudela adierazteko hitzarmen hau sinatu dute hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Udalaren izenean

Astigarragako Herri Eskolako Guraso
Elkartearen izenean

Xabier Urdangarin Lasa

Naroa Morales Ibañez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título: 2025MDIZ0002-Hitzarmena/Hitzarmena ()

Digitalki sinatua:
 URDANGARIN LASA XABIER
ALKATEA
Astigarragako Udala Data: 2025/04/02 14:32:43